

# Karkara

*karkara.com*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2014ko urriaren 31a · 355. zenbakia. 26. urtea



## Eta zer diote auzoko katalanek?

Aian eta Orion ezagunak diren lau katalan bildu ditu KARKARAK mahaiaren bueltan, Kataluniaren gaur egungo egoeraz hitz egiteko

**8**

**Elkarrizketa**  
Rosaura Bravo

**12**

**Nire honetan**  
Iñigo Exposito

**20**

**Argazki erreportajea**  
Talai mendi

**32**

**Udalaren txokoa**  
Zaborra eta garbiketa



**INDO**  
 Garraio frigorifikoa  
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4  
 Tel. 943 894 024  
 Fax. 943 130 144  
 20809 AIA - ORIO



**(B)** Diru (B)eltza,  
 gizarte-zerbitzu  
 (B)eltzak

“A” gizartea  
 lortzeko  
 eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA  
 GARDENERA

[www.ekonomiagardena.net](http://www.ekonomiagardena.net)



**Izarra Bideoa**



zure kreditu  
**DOAN** txartela



PHILIPS 22"  
**155 €**




LENOVO  
 15,6" 500GB  
**299 €**



**229 €** tik hasita  
 IGNIS  
 NEURRI GUZTIETAN

hilabete  
 interesik gabe

**329<sup>90</sup> €**  
 TEKA



**RENOVE  
 PLANA**

Jarratzen du!



**239 €**  
 BEKO A++  
 6kg 1000r/min

**TIEN 21**

Eusko gudari, 44 • 943 833 881

**TIEN 21**



# HASI BERTSOTAN

ONETSINE ARRIZABALAGA (AITA SEMEAK TABERNAN DAUDE)

## Goiko kaleko festek 10 urte

Berriz iritsi zaigu urria  
hasi kaleak apaintzen!  
Auzoko lagun, haur eta heldu,  
alde zaharra berpizten.  
Bentazaharreko mutiko alaiak  
kantuz kaleak girotzen  
hamarkada bat Goikokalea  
urtero biziberritzen!

Pillikun Maria Maestrarekin  
hasten da festa urtero  
bingoa, musa, gazta apustua,  
txokolate bero-bero,  
azoka, bertsok, bizikletak,  
toka ta tortila gero,  
Zakilaneko aldapan gora  
bada zerbait egunero.

Bimilalauan kuku bat egin  
ondoren antolatzaile,  
tarteko zortzi ediziotan  
ardo nahiz trapu saltzaile;  
aurten ezin zuekin hor egon  
baina ez nun egin nahi kale  
bihotzetikan maite zaituztet  
eta gora Goikokale!



# 355

## Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkartea

**Zuzendaria**  
Lore Berasaluze

**Erredaktore burua**  
Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**  
Onintza Aiestaran,  
Olatz Artola,  
Iñigo Exposito,  
Jon Garate,  
Iñaki Iturain,  
Idurre Lizarralde,  
Elizabete Manterola  
eta Rikardo Uzkudun

**Publizitatea**  
Idurre Telleria

**Ale honetako kolaboratzaileak**  
Imanol Alkorta,  
Libe Garmendia,  
Jakes Goikoetxea,  
Eli Huegun,  
Ion Lertxundi,  
eta Beatriz Zulueta.

**Diseinua**  
Saioa Perona

**Banatzaileak**  
Nora Pielago eta  
Leire Zinkunegi (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako  
esanen edota iritzien erantzuk-  
izunik. KARKARAN argitaratu-  
takoa berreman daiteke,  
osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

**TOKIKOM**

### LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Eusko Jaurlaritza  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Publizitatea kontratatzeko:  
**Karkara**  
688 859 682 (Idurre)  
karkara@karkara.com



karkara.com

**XABIER URRETABIZKAIA**

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arrantzale, 31 20810 ORIO



**ASADOR XIXARIO**

Enko Gudari Kalea, 2  
Tel. 943 300 019 - ORIO

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00



**MANTEROLA S/L**  
ESFERA ETA RETENTZIOKO BALBULAK

Santiago auzoa - 12 postakutza  
Tel. 943 830 743  
Fax: 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@tmmanterola.com  
20810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula  
AENOR kalitate martagindua

**GARMENDIA**

INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondó, 1  
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**KOLON TXIKI**  
*aholkuagaitza*  
*gestioak*

Herriko Euparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**LURDES**  
*ARRANDEGIA*



Eusko Gudari, 4  
Tel. 943 83 00 24



**AIRDATZA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com ☎ 665 70 33 47

**IGLESIAS**  
**SARRAILAGILEAK**

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascerrojeros@igthoo.es  
20810 ORIO

- ATEAK INKERTZEN DITUZU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOKURRI ALDAKETAK
- KOMUNITATEBERRITZAKO ZERBITZUA

**Seguros Bilbao**

Orioko ordezkaria

Santi Barranco  
Telf.: 618581398  
Arizaga, 2 - 2º eskerria  
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

**PERTSIANAK**

A K O M A Z



Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**Portu**  
**ERRETEGIA**

Sando Erreka Auzoa, 49  
943 89 44 04  
20809 AIA-ORIO



Erretak laserretan aldatu  
niribet erretak erretak erretak

## Oriotarrei entzun eta ekarpenak jaso

Orioko EAJ-PNVk iragarri du sei lan talde osatu dituela oriotarrek egunero kotasunean eta, baita ere, herriaren etorkizunari buruz dituzten kezkak, ikuspuntuak, iritziak, eta iradokizunak entzun eta partekatzeke modu zuzenean.

EAJko lehendakari eta alkatetzarako hautagai den Joxe Angel Zalduak adierazi du abian jarri berri duten ekimen honen helburu nagusia dela oriotarrek bere herriaz, bere alde onak eta hutsuneekin, kaleak sentitzen eta ikusten duen ahalik eta argazki zuzenena egitea. *Adituen eta teknikarien ikuspuntuetatik baino harago joan nahi dugu, eta modu zuzenean ahalik eta herriar gehien iritziak jaso.*

*Gure lehentasuna pertsonak dira eta, horregatik, pertsonen partaidetzan sistenten dugu, hori delako bide egokiena etorkizuneko udal proiektuak eremu guztietan ondo definitzeko, nola hirigintzan, ekonomian hala gizarte arloan. Eta azpimarratu du: ezin da erabakirik hartu edota gobernu programa bat osatu herritarren iritzia kontuan izan*

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

*gabe eta, are gutxiago, haien borondataren aurka.*

Horrela adierazi du osatutako lan taldeak sei esparrutan arituko direla, bakoitza bere arduradunarekin. *Horrela, ongizateari lotutako gaietaz, ditugun baliabidez, gabeziz, jasoko diren eta partekatuko diren ekarpenez Noemi Ostolaza arduratuko da. Bigarren bat, Gobernu Onarena izango da eta arduraduna Zaldua bera izango da.*

*Erronka moduan jarria dut egunero jendeari zuzenean entzuteko denbora ateratzea eta, segidan etor daitezkeen erabakiak entzun eta egindako ekarpenak kontuan izanda hartzea.*

Turismo, merkataritza, ekonomia, arrantza eta nekazaritza arloko gaietan Martxiel Genova arituko da. *Orioko herriri bete betean ukitzen diotenak* Zalduaren esanetan. Hirigintza, obra eta zerbitzuen inguruko azterketa eta gogoetak jasoko dituen arduraduna Iñaki Lertxundi izango da eta euskara eta hezkuntzari lotutakoak Fernando Aranbarrik kudeatuko ditu. Seigarren atala, kirolak eta gazteriaz arituko da, eta arduraduna Ainhoa Usandizaga izango da.

Amaitzeko, Joxe Angel Zalduak esan du bere hautagaitza publiko egin zenetik hainbat harreman eta bilera izan dituela ekonomi arloko, hezkuntza esparruan eta gizarte erakundeetako eragileekin, eta oraingo urrats hau eman dutela udal politikagintza, batez ere, kale mailan gauzatu behar delako eta herritarrei gonbita luzatu die ekarpen eta iradokizunak egiteko, baita ere, eaj.pnv@gmail.com posta elektronikoren bidez. ■ **Orioko EAJ-PNV.**

## ZORITXARRAK!

### Gaztetxeko lapurrei

2010en hasi zuen bere ibilbidea, auzolanean, Etxeluzek. Lau urte dituen gaztetxean herriko hainbat gazteren izerdia eta ilusioa dago. Lorpen txikiena esfortzu handiaren emaitza da.

Gaztetxea bizirik egon den urteetan behin baino gehiagotan sartu dira lapurtzera; azkena, irailaren 27an.

Leihoa hautsita sartu ziren barrura. Edariak eramane zituzten, 100 euro baino gehiagoko balioa zutenak. Kalteak ere eragin zituzten gaztetxean.

Amorru gorria eragiten dute horrelakoek, gaztetxe bat eraikitzeak eta bizirik mantentzeak lan handia eskatzen du eta horrelakoak atzera pausoak dira. Urrats bat atzera egiteak aurrera egiteko bultzada hartzeko balio dezala eta lapurretarik berritua gerta ez dadila!

## JAIOTAKOAK

- Ekai Albizu Madariaga, Orion, urriaren 10ean.
- Eki San Sebastian Egaña, Orion, urriaren 7an.
- Angello Danger Larrañaga, Orion, urriaren 4an.
- Xua Manterola Otamendi, Orion, urriaren 2an.
- Aitana Maciejewski Torres, Orion, irailaren 29an.
- June Rodriguez Masa, Orion, irailaren 29an.

## EZKONDUTAKOAK

- Mimoun Chami eta Dounia Zmara, Orion, irailaren 30ean.
- Ninoshka Gozategi eta Jon Mendizabal, Orion, irailaren 27an.
- Jose Miguel Macias eta Maria Yolanda Villar, Orion, irailaren 25ean.
- Oihana Gurmendi eta David Lobo, Orion, irailaren 20an.

## HILDAKOAK

- Felix Marin Aldaz, Orion, urriaren 19an. 84 urte.
- Jose Erkizia Aristondo, Orion, urriaren 9an. 76 urte.
- Enrike Esnal Errasti, Orion, urriaren 9an. 86 urte.
- Milagros Mujika Manterola, Aian, urriaren 8an. 76 urte.
- Manuel Cid Conde, Orion, irailaren 26an. 81 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**





Jakes Goikoetxea egunkariaren aldeko ekitaldi batean.



Iñaki Ituraini bere liburuaren harira egindako elkarrizketan.



Miriam Garcia KARKARAKO kazetaria Azpimarran.

# Udararen azken arnasa

“Ahotsa izango du KARKARAK ETB1en, aktualitateko gaiei azpimarra jartzen arituko baikara aurrerantzean.”

**U**rrian, udazkena urria. Udararen azkena? Eguzkia dir-dir zeruan; lainoek estaltzean hego haizeak dirau. Uzta udazkenak egin du puzta. Hostoek oraindik ez dute hegan egiten, belardiak berde daude. Txoriek hasi dute udazkeneko bidaia, neguko *beroari* iheska. Txikota erriatu dute arrantzaleek, amarratu dira moilan.

Txikota mutiloiletik askatzen hasi genuen urria. Ikastolen aldeko festari ere horrela eman zitzaion hasiera, eta amaiera, erriari H-a jarrita. Gure herria baita askatu behar dena.

Aske, hamaika urteren ondoren Egunkariako auzipetuak. Auzia amaitu da, justizia ez da egin; zauriek irekita jarraitzen dutela aitortu zuen Jakes Goikoetxeak.

Gerraren zauriek ere irekita jarraitzen dute. 36an bizitako sufrimenduari gero jasan beharreko isiltasunak bikoiztu egin du mina. *1936ko gerraren ubera Orion, Gerra bat barruan degula* liburuan ahotsa eman die alde bietakoei Iñaki Iturainek.

Ahotsa herritarrei eman nahi izan die Eñaut Martík eta bere lankideek *Democreativity* proiektuarekin; eta ahotsa izango du aurrerantzean KARKARAK ETB 1en, gaurkotasun-gaiei azpimarra jartzen arituko baikara.

Orioko nortasun kolektiboa transmititu dadin herriaren izaera biltzen duen dokumentu pedagogikoan egon beharrekoak azpimarratzea egokitzen zaie ikastetxeei; eta ondoren, herritarrei. Auzolanean eraiki nahi da Orioko curriculum, eta auzolanean antolatzen ari dira herriko festak.

Urria Ikastolen aldeko jaiarekin hasi eta San Nikolasak prestatzen bukatu dugu. Azarora ere festei begira igaroko dugu, abenduaren 5a noiz hasiko zain. Itxaronaldia beti egiten da luze, izan pazientzia.

# Santu Guztien Eguna ospatzen al duzue etxean?



“Loreak eramaten ditut eta hilobia garbitzen dut.”

**U**rtero-urtero joaten naiz Santu Guztien Egunean hilerrira, ez dut hutsik egiten.

Goizean goiz joaten naiz ni eta bisitatu beharreko hilobietan parada egiten dut. Loreak eramaten ditut eta garbitu ere egiten ditut, txukun-txukun utzi arte. Familiakoak elizara joaten dira egun horretan.

Beraz, urtean zehar, ez naiz elizara sarri joaten den horietakoa. Ordu-tegi aldetik ez dator kit ondo; eguerdiko 12ak berandu da niretzat; goizean goiz egongo balitz joango nintzateke.

Hilerrira, aldiz, gehiagotan joaten naiz. Paretik pasatzen naizen bakoitzean barrura sartzen naiz.

**Anjel Solaberrieta**



“Derrigortuta nagoenean joaten naiz hilerrira.”

**E**z daukat ohiturarik hilerrira joateko; normalean ez naiz joaten, ez Santu Guztien Egunean, ez urteko beste edozein egunetan.

Entierroren bat baldin badago joaten naiz, hori bai. Lagun bat edo gertuko pertsonaren bat hiltzen denean, adibidez, joateko obligazioa sentitzen dut. Derrigortuta nagoenean joaten naiz, bestela ez dut hilerrira bisitatzen, ezta eliza ere.

Txikitari ere betebeharra zelako joaten nintzen, amakesaten zidalako. Handitu nintzenean, nik neuk erabaki behar nuenean joan ala ez, ez joatearen hautua egin nuen. Entierroetara joaten naiz bakarrik.

**Patxi Mujika**



“Emaztea eta biok sarri joaten gara kanposantura”

**A**skotan joaten naiz kanposantura. Ez da urtean behin soilik egiten dudana zerbait, emaztea eta biok askotan joaten gara.

Loreak zaintzen ditugu eta zaharrak daudenean kendu eta berriak jartzen ditugu. Hori urtean bitan egiten dugu gutxi gorabehera. Santu Guztien Egunean, esaterako, goizeko seiak aldera joaten gara lore eta guzti. Loreak negu sasoiaren eutsi egiten dutenak izaten dira.

Baina loreez gain kandela eta farola ere ematen ditugu, argiztatzeko. Dena den, farolak bueltan ekartzen ditugu ondorengo egunean, bestela ostu egiten dituzte eta.

**Antonio Manterola**



FISIOTERAPIA  
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577 685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

# “Urtero esaten didate aurtengoa dela jantzirik politena”

**Rosaura Bravo**

Jostuna

Askok baserritar jantziak egiten dituelako ezagutzen dute. Baina gutxi dakite Euskal Herriko pailazo maitatuenen jantzi koloretsuen atzean bere eskua eta makina daudela.

**M. GARCIA**

Hogeita lau urte pasa dira Rosaura Bravo –Orio, 1962– lehen aldiz josteko makinaren aurrean jarri zenetik. Etxeko beharretatik hasi zena pasio bihurtu da denborarekin.

## **Nola hasi zinen josten?**

Seme gazteaz haurdun nengoenean hasi nintzen josten. Ama jostuna zen eta umearentzako arropak egiten ari zen. Baina gaixotu egin zen eta nik amaitu behar izan nituen arropa horiek. Horrela hasi nintzen josten, ordura arte ez nuen josteko makinarik sekula erabili. Pixkanaka geroz eta gehiago josten nuen...

## **Zure lanbide bihurtu arte**

Bai. Nik berez administrazioa ikasi nuen, ez nuen jostuntzarekin zerikusia duen ezer ikasi. Baina jostea askoz gehiago gustatzen zait bestea baino. Batzuei eta besteei gauzak egiten nizkien, eta azkenean, ingurukoek kanporako gauzak egitera animatu ninduen.

## **Baserritar jantziak egiteagatik ezagutzen zaituzte askok.**

## **Nola hasi zinen horretan?**

Semeak eta lagunen seme-alabak euskal dantzan hasi ziren. Garai hartan hasi zen jantzi berri hauek egiteko moda, eta lagun bat, bere ama eta hirurok Errenteriarra joan ginen Ramon Garcia jostunaren tailerra ikustera. Bera izan zen jantzi mota hau berriz egiten lehenengotarikoa. Han ikusitako jantziak asko gustatu zitzaizkigun, patrioiak uzteko eskatu genion, eta horrela egin genituen lehen jantziak.

Jendeari gustatu egin zitzaizkion eta ingurukoak ere eskatzen hasi ziren. Batei eta besteei, eginaren eginaz, etxeko behar bat bezala hasi zena denda batean amaitu zen. Urte asko egon nintzen dendarekin.

## **Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen jantziak ere egiten dituzu.**

Baserritar jantzien dendarekin nengoela, beraiek etorri ziren nigana. Donostiako denda batentzat egiten nituen jantziak eta bertan galdetu omen zuten jostunik ezagutzen ote zuten, eta nigana bidali zituzten. Nik orduan ez nituen ezagutzen, ez nekien zein ziren Pirritx eta Porrotx.

Beraiek pertsonalki etorri ziren, jantziak egingo zizkien norbaiten bila ari zirela eta proba bat egitea proposatu zidaten. Gustatu egin zitzairen egin nuena eta aurrera jarraitu genuen. Gaur arte.

## **Zenbat urte daramatzazu horrekin?**

Hamalau urte inguru, asko. Urtero egiten diet jantzi berria, ikuskizunaren gaia ere aldatu egiten baitute.

## **Aurtengo gaia San Juan baleontzia da, nola islatu duzu jantzietan?**

Hasieran zaila izan zen, marinela nola egin ez nekien ongi. Mahoizko ehunak eskatu zizkidaten, baina pailazoentzako jantziak direla kontuan izanda, koloreak sartu nituen. Arrantzaleek erabiltzen zituzten gauzak –sarea, itsasontzietako kortxoak– erabili ditut, eta koloretako arrain eta sokak





Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Rosaurarekin, berak egindako jantziak soinean dituztela. KARKARA

“Nire gorputzak josteko eskatzen dit. Hamabost egun pasatzen baditut ezer egin gabe beharra nabaritzen dut.”

jarri dizkiet pailazoak behar duten puntu hori emateko.

#### **Zein lan-dinamika duzue jantziak egiterakoan?**

Mertxerekin –Marimotots– dut harreman gehien, berabaita jantzien arduraduna. Hiru pailazoen jantziek beti oinarri bera dute: Pirritxek soinekoa, Marimototsek gona eta kamiseta edo txalekoa, eta Porrotxek galtzak eta alkandora eramanen dituzte, guztiak gaiari moldatuta.

Beraiek gaia ematen didate, eta batzuetan koloreen bat nahi dutela esaten didate. Gero, nire lana erabat librea da eta bukatzen dudana arte ez dute ikusten. Dudaren bat badut berekin hitz egiten dut, baina normalean ez dira probatzera etortzen, beren neurriak eta patroiak baditut-eta.

#### **Gustura geratzen dira?**

Bai, oso gustora. *Aurtengoa da jantzirik politena*, esten didate. Baina urtero berdina diote. Behin esan nien jubilatut egingo nintzela, baina esan zidaten ezetz, Joxe Mari –Porrotx– jubilatzen denean hartuko dugula guztiok erretiroa. Niri ere asko gustatzen zait egiten dudana, sormena martxan jartzen dut eta oso lan polita da.

#### **Nola bizi duzu jostunaren lana?**

Nik ez dut neure burua jostuntzat hartzen, hara! Nire gorputzak josteko eskatzen dit, asko gustatzen zait, eta horregatik josten dut. Hamabost egun pasatzen baditut ezer egin gabe beharra nabaritzen dut. Ez da nire eguneroko lana, batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago josten dut.

**KAXAIO**  
 PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak  
 pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com

☎ 656 777 574

WWW.FOTORAMIRO.COM

943 681043

610 687 688



**HAIZE BERRI**  
*taberna-jatebasa-kafetegia*

Plater konbinatuak,  
 bokatak,  
 hamburgerak,  
 rustiak,  
 eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Bada Gurekin: Osoa 1. 49 501 01 0 10. Aterako gurekin bada.

**ROSANA ARRUTI**  
 ARGAZKI ESTUDIADA

Aita Lertxundi, 26  
 -Orio-

Tel.: 943 835845  
 fotorosanaarruti@gmail.com



**zku**



Tf: 943 130 438

**zku**



**Zarautz**

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

**Carmen eta Txomin**  
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**arkaitz taberna**  
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
 Giro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**Orioko Herri Ikastola**



Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

**Zaragueta Herri Eskola orio**



telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezuntza.net

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**



GARBIÑE ARRILLAGA  
 ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43

10% DESKONTUA FAMILIA UGARJENTZAT

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
 finka administratzailea  
 gestoria  
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
 Ibai Ondo 4, behea, 20810 Orio

# Osasunez elikatu



Libe Garmendia

**N**ontignac, Atkins, Dunkan...ez dira ez, Realeko azken fitxaketak. Abizen horiek gure gizartean hain erroturik dauden izen bereko dieta miragarrien sortzaileak dira. Talde berean sartuko genituzke, baita ere, beste hainbat: pomeloarena, paleolitoarena, ilargiarena...Horien sortzaileek, pisua oso azkar eta batere esfortzurik gabe galdu daitekeela sinestarazi nahi digute, sor ditzaketen ondorioei batere erreparatu gabe. Izan ere, oso kaloria gutxi sartzean edota talde bateko elikagaiak debekatzean, gorputza falta zaiona beste modu batera lortzen hasten da. Horregatik, galdutako pisua ura eta

**“Pisua oso azkar eta batere esfortzurik gabe galdu daitekeela sinestarazi nahi digute”.**

giharretatik hartutakoa izaten da, eta ez soberan egoten den gantzetakoa. Ondorioz, galdutako pisua berehala berreskuratzen da.

Gorputzari horrela jokatzera behartzeak kalteak eragiten dizkio. Organismoak asko sufritzen du. Giltzurrun eta gibelego arazoak, elikadura desorekak, obesitatea... sor dezaketela ikusi izan da. Batez ere, luzaroan mantendu eta inongo kontrolik gabe egiten direnean.

Ehundaka ikerketek garbi erakusten dute, pisua modu osasuntsu batean jaitsi eta luzaroan mantendu ahal izateko, beharrezkoa dela jateko ohitura osasuntsuak jarraitu eta bizitza aktiboa izatea.

Eta zuk Bea, zer iritzi duzu honen inguruan?



Beatriz Zulueta

**N**ai Libe, dieta miragarrien artean eta industriak asmatzen dituen elikagai berrien artean, kontsumitzaileari zaila suertatzen zaio jateko osasuntsua zer den antzematea.

Honetaz gain, publizitatea oso indartsua da eta gainera legeak nahiko ahulak dira esparru hauetan. Alde batetik osasuna eta edertasunaren inguruan hainbat eta hainbat mezu bidaltzen dizkigute, eta bestetik iragarkietan azaltzen diren produktu gehienak gantz eta azukre askotariko elikagaiak dira. Noizean behingo kontsumoa gomendatzen den elikagaiena hain zuzen ere.

**“Dieta miragarri eta elikagai berrien artean, zaila da osasuntsua zer den antzematea”.**

Hortaz, elikadura osasuntsua sustatu behar da, bai, baina muturreko mezuak bidali gabe. Ez hainbeste esetikari begiratu, sasoiari baizik. Honela, fruta, barazki, lekale eta zereal integral gehiago jatera animatu behar da gizartea eta ariketa fisikoak gure eguneroko bizitzan duen garrantziaz ere kontzientziatu.

Elikadura osasuntsua eta gorputza mugitzea orokorrean uste baino beharrezkoagoa da. Oso denbora gutxian frogatu daiteke nola ongi elikatuta egotean, osasunaz bizitzeko, ikasteko, lan egiteko eta gaixotasunetatik babesteko aukera handiagoa dagoen.

Elikadura osasuntsu eta askotarikoa zera da, sasoi-tsu mantentzeko beharrezkoak diren nutrientek dituen.





Iñigo Exposito

## Ebolaren atzean zer dago?

Azken asteetako *trending topic* bilakatu da ebola. Hedabide guztietan hitz egiten da gaixotasun famatu horretaz, edo agian orain egin dute famatu? Hedabide guztiak informazioa bidali eta bidali ari dira horren inguruan, baina input horien kalitatea eskasa izaten ari da. Zer ote dago horien guztiaren atzetik?

Zerbait bai eta hori begi bistakoa da. Datu estatistikoaren arabera, Afrikan, milaka pertsona hiltzen dira urtean birus hori pairatu ostean. Baina Mendebaldeko pertsona batek positibo eman arte ez gaitu arduratu gaixotasun horrek. Jada, ordea, berandu da, gaitz horrek aspalditik daramatzalako gizabanakoak heriotzara. Mendebaldekoek, ordea, gauza guztiarekin egiten dugun moduan urruti ikusten genuen. Askok, gainera, ez zuten gaixotasunaren berri. Uste dugu oso urrun ditugula arazoak eta errealitatean oso gertu daude. Begen aurrean ditugun lenteak itsu bilakatzen gaituzte.

Horrez gain, komunikabideak, fikziozko film txarretan

aurki genitzakeen irudien bila dabilta, irudi sentsazionalistenaren saria nork lortuko duenaren lehian. Dirudienez, hedabide batzuk ez dira ohartzen errealitatea erakusten duten bitartekariak direla eta horiek zer nolako eragina duten gizaratean. Hegaztien gripearekin egin zuten moduan, iritzi publikoa manipulatu nahian dabilta, horrek guztiak ekarriko dituen ondorioekin. Baina zalantzarik ez dago betikoak izango direla garaile, eta, betiko legez merezi ez duena aterako dela galtzaile. Horren aurrean ez dugu erreakzionatuko eta

egoerak modu berean jarraituko du.

Bestalde, begi bistakoa da, gobernariarentzat aukera ezin hobea bilakatu dela; izan ere, denboraldi baterako herritarren iritzi publikoa beste norabide batean

jarrita egongo da. Non gelditu dira orain etxe kanporaketak, Barcenasen lapurretak edota Urdangarinen kasuak? Iritzi publikoak ahaztu ditu jada. Iritzi publikoa guk uste baino gehiago manipulatu dute eta horretarako dagoen antidoto bakarra ardi izateari uztea da.

**Agintarientzat aukera ezin hobea bilakatu da, denboraldi baterako herritarren iritzi publikoa beste norabide batean jarrita egongo da. Iritzi publikoa uste baino gehiago manipulatu dute.**

**BODEGAS**  
*Gailur*

01800 34 4210 & 4280  
Tel./Fax 943 83 91 50  
www.bodegasgailur.com

Arabar Errizta

**ZUDUGARAI**

Galariako Txakolina

Tel. 943 83 83 86  
Fax 943 83 39 38  
txakolin@zudugarai.com  
www.txakolinzudugarai.com

**Katu Moria**  
OHARTARITZA PIIHKA

**ESTROPALARI, 10**  
20810 ORIO

tel. 943 11 66 99

www.katumoria.com

Larriandik  
888 89 11 29



Imanol Alkorta

## *Bikoiztuta, bi bider txarra*

***Iñaki, barkatu, ez zaitut ezagutzen, baina nola ausartzen zara Clint Eastwooden boza lapurtzen? Pelikula bat bikoiztean interpretazioaren zati handi bat ari gara galtzen.***

**B**uela pare bat aste zapping egiten ari nintzela Gran Torino pelikula suertatu zitzaidan ETBko lehenengo katean. Zinean ikusi nuen bere garaian eta asko gozatu nuen, beraz, zapping egiteari utzi eta filma ikusi nuen.

Aitortu beharra daukat Clint Eastwoodek zuzentzen dituen ia film guztiak gustatzen zaizkidala, baita berak egiten dituen paper guztiak ere; batzuetan sinplea naiz.

ETB leian, ordea, euskaraz bikoiztua ikusi nuen. Tripetan zitzada bat sentitu nuen, burua berotzen hasi zitzaidan eta minutu erdi batean burua estutu eta katez aldatu nuen. Zapping egiten hasi nintzen berriz ere.

Eztaikit irakurleari inoiz antzekorik pasa zaion euskarazko pelikula bikoiztuekin, ziurrenik bai. Nik behintzat katez aldatzeko premia sentitu nuen.

Iñaki Beraetxek jartzen dio ahotsa. Iñaki, barkatu, ez zaitut ezagutzen, baina nola ausartzen zara Clint Eastwooden boza lapurtzen? Pelikula bat bikoiztua ikustean, aktorearen interpretazioaren zati handi bat ari gara galtzen; pelikularen kalitate artistikoaren zati handi bat desagertzen da.

Nik ez ditut Iñaki edo Constatino Romero entzun nahi, jatorrizko pelikula nahi dut! Hain onak dira Espaininan egindako bikoizketak, jatorrizko bertsioa bezain onak, ia hobekak... bejondeiela! Hemen ez gara hain inozoak, ez genuke izan beharko behintzat, jatorrizko pelikula lapurtzen baitigute. Berdela ere, jan daiteke parrillan baina ez deitu bisigua; esan berdela dela!

Baina errua ez da aktoreena noski ezetz, arduraren dago. Zergatik gastatu hainbeste diru inork euskaraz bikoizketak ikusten ez baditu? Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak gehitu behar ditu ikusle-kuota bat ezarriaz; gure bizilagun frantzesek egiten duten bezala, leihatilako salmenten portzentaje bat zerga moduan erabili beren estatu-ko pelikulen produkzioarako. Urtean euskal pelikula kuota bat ezartzean dago gakoa.

Aldi berean kalitatezko euskarazko zine bat egiteko, konplexurik gabea, atzerriko zinea ikusi behar da. Ezin da kalitatezko zinerik egin kalitatezko zinea kontsumitu gabe, idazle bikaina izateko irakurle bikaina izan behar den bezalaxe, eta, horretarako, pelikula asko ikusi beharra dago. Biak dira posible: pelikulen azpigituluak egitea jatorrizkoen kalitatea babesteko eta euskal zinema sustatzea kupo baten bidez. Frantzesak baino gutxiago ez gara izango.





# 1936ko gerrak Orion utzitako ubera, liburu batean bilduta

Azalean *Gerra bat barruan degula*, Benito Lertxundiren kantu iradokitzailea batetik eta, **1936ko gerraren ubera Orion**, titulu informatzailea bestetik. Barruaren gerrak utzitako datuak eta testigantzak.

**TESTUA: OLATZARTOLA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

**B**i begiekin idatzi du liburua Iñaki Iturainek; biak zabal-zabalik dituela egin du idazketa-prozesua, bat itxiz gero, errealtatearen parte bat besterik ez baitzuen ikusiko. Jasotakoa paperera ekarri du, gardentasunez eta zuhurtziaz.

Zentsurak ez du tokirik izan oriotarraren liburuan; behin gerra bezalako gai gordin bat eskuartean hartuta, guztia kontatzea ezinbestekoa iruditu zaio. Hori egiten ahalegindu da: jaso ahala zintzotasunez idazten.

Liburua informatiboa da oso, ondorio propioak jartzeari ez dio tokirik utzi. Zabalik laga ditu interpretaziorako atea; irakurleak bere ideologia eta gaiaren ezagutzaren arabera ondoriozta dezala nahi duena.

## **Duela 20 bat urte hasi zenguztia**

Etxean beti entzun ditu gerrako kontuak, bere aita zena gerran ibili baitzen. Txikitatik kateatuta eduki duen gaia da, erakartzen duena.

Gerrari buruz idazteko lehen saiakera duela 20 urte inguru egin zuen, Jakes Goikoetxearekin batera Karkaran idatzitako erreportaje batean. Hura izan zen gerraren kontakizuneko lehen urratsa. Orduan hasitako bideak ez du etenik izan geroztik; hamaika istorio entzun eta irakurri ditu eta guztiak gorde, bai buruan, baita paperean ere.

Duela hiru urte emakume bat joan zitzaion, bere historia kontatzera. Gerra bukatu berritan, haurra zela, ihes egin zuten Frantziara, aita han zegoelako, itzuli ezinik. Emakumea han hazi eta hezia da, eta haren ondorenekoak ere bai; Iturainek istorio hura idaztea nahi zuen, ingurukoei azaltzeko zergatik diren frantses eta euskaldun.





Istorio hori entzundakoan erabaki zuen liburua idaztea, horrelako beste hamaika kontu baitzeuden azaltzeko. Duela hogeit hamar urte hasitako lanaren fruitua da urriaren 16an aurkeztu zuen liburua.

### **Hiru hanka dituen liburua**

Duela hiru urtetik hona bizipen asko entzundakoa da: istorio gogorak, tristeak, hunkigarriak... Liburua egiteko oinarri nagusia izan da jendeari entzundakoa, herritarren testigantzak, baina ez da bakarria izan.

Beste bi hanka ere izan ditu: artxiboak eta hemeroteka. Informazio eta agiri asko bilatu ditu artxiboetan, Orion, Aian eta Zarautzen. Hemerotekako liburuak, aldizkariak eta prentsa ere baliagarriak izan zaizkio.

Emakume haren istorioa entzun zuenetik dokumentazio lan handia egin du, baina idazketa-prozesua ez du alboratu. Bateratsu joan dira biak: jaso ahala idazten joan da, forma ematen, istorio guztiak lotzen dituen hariarekin josten.

### **Bakoitzaren gerra propioa, etxekoa**

Gerra galdu zutenek gogo berezia izan dute bizi izandakoa kontatzeko. Galtzaileen senideek gerraren porrota pairatzeaz gain, geroko isiltasuna ere jasan zuten. Ezkutuan egon behar izan dute, ez dute hileta-elizkizunik izan ezta barrua askatzeko aukerarik ere. Liburuaren aukera baliatu dute ixilpean zutena esateko.

Beste batzuentzat, ordea, gai tabua da gerra. Oraindik ez dute horri buruz hitz egin nahi izan, aipatze hutsak ikara ematen die. Duela 78 urte ikusi, sentitu eta bizi izandakoak gogorra behar du izan, oraindik barruan beldurra sentitzeko.

Lekukotasun ezberdinak entzun ditu idazleak: argia ikusi nahi zuten bizipenak eta oraindik itzalpean jarraitu nahi dutenak. Galtzailearen eta irabazlearen rolean jarri da Iturain, eta ondorio argi bat atera du: guduetan ez dago irabazlerik, denak dira galtzaile, eta, batez ere, gerra bakoitzak bere baitan bizi duen tragedia da.

“Gerraren gaineko lehen istorioak aitari entzun zizkion, etxeko sukaldean.”

“Liburua osatzeko, jendeari entzundako testigantzak izan ditu oinarri nagusi.”

“Gerra batean ez dago irabazlerik, denak dira galtzaileak.”



### Zorigaiztoko zenbakiak

2.000 biztanleko arrantzale eta baserritar giroko herri txikia zen Orio 1936an. Lan eta diru gutxi, eta krisi handi samarra bizi zuten, eta tentsio egoera. Horren erakusgarri da urte hartan bost alkate izatea herrian.

Zubi bat bota zuten gerra hasi eta bi hilabetera. Oriotar guztiek oroimenean gordetako datua da hori. Baina ez zen bat izan, bi baizik: trenbideko zubia ere *bolatu* zuten.

Nazionalak herrian sartu eta 3 neska gazte zigortu zituzten: kaskamotz utzi, olio edanarazi eta kalean ibili zituzten gora eta behera, jendaurrean barregarri utzi nahian.

Gerrak 22 oriotar hildako utzi zituen. Ia denak frontean, gehienak Ebroko guduan. Izan ere, 18-19 urteko gazteak eraman zituen Francoren armadak eta, hortaz, irabazleen aldekoak dira hildako gehienak. Frontetik kanpo, 3 hildako izan ziren. Jose Maria Carmona gorriek hil zuten, Ondarretako kartzelatik aterata. Teodoro Mitxelena falangistek hil zuten, etxetik atera, Getariko kanposantura eraman eta han tirokatuta. Felipe Aierbe mikeletea ere tiroz hil zuten Bilbon.

Etxean istripuz hildako bat ere izan zen; anaiak gerratik ekarritako granada hartu eta eskuetan lehertuta.

### Oharkabean etorri zenari aurre egiten

Uztailaren 17an Orion inork ez zuen pentsatuko biharamunean gerran egongo zirenik. Eguneroko bizimodu arrunta zuen herrian, gerra lehertu, tsunami baten moduan etorri eta herria bitan banatu zuen. Ekaitza barru-barruraino sartu zen eta ubera utzi zuen.

Gerra ostean, botereak ezarritako errepresioa nagusitu zen. Gobernuak eta Elizak beren ideologiaren pean hartu zuten herria. Hala ere, herritarrek jakin zuten, elkarren errespetuz, gerra atzean utzi eta elkarbizitza eraikitzen, mende-urik gabe. Oriok erantzun baikorra eman zion gerraren izugarrikeria hari. Garai gogorak izan ziren. Erbesteratutakoak eta hildakoak, hamaika; sufritu zutenak, asko; eta galtzaileak, denak. Hori dena jaso du Iñakik 1936ko gerraren ubera Orion – Gerra bat barruan degula liburuan.

“Errioko zubia bota zuten, gerra hasi berritan; eta Altxe-  
rriko trenbidekoa ere bai.”

“Gerra ondoren, Orioko he-  
rriak jakin zuen, errespetuz, el-  
karbizitza eraikitzen.”

### ELKARRIZKETA BIDEOAN



### ZENBAKIA

# 22

**Hildako.** Gerran hildako oriotarren kopurua da hori: 22, gutxienez. Gehienak Ebroko bataila odoltsuan hil ziren, 1938 eta 1939an, Orioko 9 gazte hil baitziren gudu hartan, Francoren armadak hartu eta gerrako lehen lerrora eramandako mutil gazteak.

# Diseinatu, inprimatu eta oparitu

## Zipristin inprimategia

Arrantzale kalea, 3



Diseinu grafikoa ikasi zuen Usoa Zulaikak eta Zipristin-en plan-teamendu bera zuen denda batean egon zen lanean. Nola funtzionatzen zuen ikusi eta Orion horrelako eskaintza duen denda batek ongi funtzionatuko lukeela bururatu zitzaion.

### Zer eskaintzen duzue?

Inprimategietan ohikoak diren gauzez gain –fotokopiak, faxa, plastifikazioak, koadernaketak, eskola materiala...– diseinu grafikoa ere eskaintzen dugu, logotipoak, bisita txartelak... Baita zerbitzu teknikoak ere, ordenagailu konponketa, disko gogorrak, usb memoriak...

Opari pertsonalizatuak ere egiten ditut, Gabonetara begira. Sublimazio teknikaren bidez, argazki bat ekarri eta ordenagailurako sagu-azpikoan, kati-luan, kuxinetan eta horrelakoetan inprimatu daiteke.

### Zer da sublimazioak?

Tinta berezia duen inprimagailu bat da eta sublimaziorako papel berezia jartzzen zaio. Diseinua ordenagailuan egin eta inprimagailu horretan inprimatzen da. Gero, beroa ematen duen plan-txa batekin, inprimatutako orria eta sublimatu nahi den produktua kontaktuan jartzen dira, denbora jakin bat eduki eta beroak tinta berezi hori papere-tik produktura pasazten du. Opari pertsonalizatuak egiteko aukera polita dela uste dut.

### Eta diseinu grafikoaren alorrean, zer egin daiteke?

Ezkontza gonbidapenak, jaunartzee-

takoak, oroigarriak, jaietako programak, zozketa txartelak, enpresa fakturak, jatetxeetako kartak... diseinatu daitekeen edozer egin dezakegu hemen. Diseinua eginda duenak hemen inprimatu dezake bere lana, edo ideiarekin etorri eta guk diseinatu dezakegu. Beti elkarlanean. Logotipoak, adibidez, oso pertsonalak dira, beti egiten ditugu aukera desberdinak eta bezeroari gehien gustatzen zaionetik abiatzen naiz logotipo definitiboa sortzeko.

Ezkontza gonbidapenetan, esaterako, katalogo bat dugu, ideia finkorik ez duenarentzat. Horietako bat aukeratu daiteke edo oinarri bezala hartu eta moldatu.

### Zein da Orion horrelako denda bat irekitzearen berrikuntza, aurrez zegoen eskaintzarekin alderatuz?

Orion orain arte Orion mugatuta zegoen kopia-denden eskaintza: A3 tamaina baino handiagoan ezin zen inprimatu inon. Diseinu lanak, paper bereziak eta formatu handiagoa nahi izanez gero –planoak, kartelak eta horrelakak– kanpora joan behar izaten genuen.

### Zein makina dituzue?

Koloretako eta txuri beltzeko inprimagailu eta fotokopiagailuak A3+ formaturarte. Plotterra eta formatu handiko dokumentuen eskanerra ere badugu. Gillotina, inprimatutakoa neurrira mozteko. Koadernaketa eta plastifikazioa ere egiten dugu. Datorren hilean formatu handian plastifikatzeko makina ere iritsiko zaigu. Bezeroaren eskararen arabera eskaintza zabaltzen joatea da gure asmoa.



- FOTOKOPIAK
- FAX ZERBITZUA
- KOADERNAKETAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- ANPLIAZIOAK
- PLANOAK

INPRIMATEGIA

- LOGOTIPOAK
- KARTELGINTZA
- BISITA TXARTELAK
- GONBIDAPENAK
- OROIGARRIAK
- OPARI PERTSONALIZ.

ARRANTZALE KALEA 3, ORIO · TLF.: 943 57 87 33 · FAX: 943 57 83 07 · info@zipristin.com





# Orion jendetza bildu zenekoa



rion historiara pasako den data da 2014ko urriaren 5a. Oriok Kilometroak jaia antolatzeko gaitasuna izan duela erakutsi zuen. Horren ikusgarri izandako arrakasta. Bost kilometro eta erdi inguruko ibilbidea, jendea lasai eta eroso egoteko adina toki, eta guztiak gainezka.

Kontzertuetan milaka lagun batu ziren, ibilbidea jendez gainezka zegoen ia puntu guztietan, egun osoan hainbat guneetan ikusi ahal izan ziren gazteak lehiatzen, eta askoz gazte gehiago haiei begira. Erronkako finalean ibaiaren ondoko pasealekuan ez zen arimarik sartzen. Treneko joan-etorrietan errenkada luzeak sortu ziren eta lotura autobusak etengabe ibili ziren jendea ekartzen eta eramaten. *Ez dakit inoiz Orion hainbeste jende egon den, zion jendeak.*

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

**Laster arte!**  
**JATETXEA**  
**Galerna**  
 Antillako Hondartza 5  
 20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

**Joana Murgiondo**  
 Aseguru-agentea  
**ASEGURUAK**  
 Abeslari, 4-2. esk.  
 Tfnoa: 943 13 46 07

**K** *karkara.com*  
**Eskaintza berria**  
**Eskaria**

**Urriko sarituak**  
**Maria Luisa Sarasua**  
 Arin y Enbil  
**Joakin Alberdi Sarasua**  
 Itziar Lizaso  
**30€**  
**Arkupeko dendetan gastatzeko**

# Eskerrik asko, ez ahaztu

**Egunkaria.** Euskaraz. Bakarra. Ezinbestekoa. Estrategikoa. Militantzia. Profesionaltasuna. Kalitatea. Txikia. Handia. Gehientzat ezezaguna.

**S. Sarekada.** Operazioa. Eraso. Gauez. Azpikeriaz. Ustekabea. Estatuaren terrorearen antzezpena. Izpi infragorriak buruan. Izua. Umiliazioa. Indefentsioa. Euskal Herrian amesgaiztoek kolore berdea dute maizegi.

**K. Kemena.** Langileena. Egunero. Malkoak xukatzeke denborarik gabe, *Egunkaria*-k segida izan zuen. Jota. Beldurtuta. Kezkatuta. *Itxia, baina ez isildua*. Harro.

**E. Erantzuna.** Elkartasuna. Etxean. Kalean. Ezagunena. Ezezagunena. Bakarka. Taldean. Amorruek mundu bat bildu zuen Donostian. Eskerrik asko.

**R. Erreakzioak.** Salaketa. Gehienak beroak; batzuk epeletik behera; eta baten bat oso hotz: onartezina, koldarra, zitala eta zikina izan zuten Miren Azkaratek *Egunero*-n argitaratutako iritzi bat.

**R. Erantzuleak.** Jose Maria Aznar, Angel Acebes, Mariano Rajoy —Espainiako lehendakariorde zen—, Juan del Olmo, Guardia Zibila... Operazioak bultzada politikoa izan zuen. Nola bestela?

**I. Inkomunikazioa.** Izua. Inpunitatea. Torturak. Martxelo Otamendi Soto del Realgo espetxetik atera berritan, telefonoaren beste aldean, hitz egin ezinik.

**K. Katalunia.** *Egunkaria* Katalunian argitaratu bali bezala erantzun zuten. Gauza bera egingo al genuke guk Kataluniako komunikabide bat itxiko balute? Orain agian bai; lehen ziurrenik ez. Gràcies.

**A. Auzi ekonomikoa.** Eskandaluaren segida. Itxiera *zuritzeko* azken heldulekua.

**S. Sostengua.** Babesa eta sosak. *Crowdfunding*-a asmatzerako ondo genekien zer zen auzolana, elkartasuna eta musu truk lan egitea. *Egunkaria* herritik jaio zen, eta baita haren ordezkoa, *Berria*, ere. *Berria* ezagutzea, irakurtzea, erostea, erabiltzea, gozatzea... da hura babesteko modu onena.

**K. Kaltea.** Neurtezina. Konponezina. Auzipetuena, senideena, lagunena, langile ohiena, irakurleena, euskararena, demokraziarena, justiziarena...

**O. Ordaina.** Ez dago kalte ordainik egindako kaltea berdinduko edo arinduko duenik. Era berean, ez dago ordainik jasotako elkartasunaren zorra kitatuko duenik. Zorretan gaude betirako. Eskerrik asko. Maite zaituztegu. Behar zaituztegu.

**E. Euskal Herria.** *Egunkaria* nazionala zen. Joxe Azurmendik esana: *Egunkariak herri bat ematen digu, edonon ukatuta daukagun herri hori. Banaizela, esaten dit egunero.*

**Z. Zintzotasuna.** *Egunkaria* objektiboa zen? Ez. Subjektiboa, baina zintzoa. Independentea.

**A. Auzipetuak.** Bidegabekeriaren eta duintasunaren sinbolo.

**H. Hildakoak.** Bidean galdu ditugu Luis Goia, Inma Gomila, Joxean Lizarribar eta Martin Ugalde. Ugalde, euskal kulturaren ikurra, diru kontuak blokeatuta zituela hil zen.

**A. Auzitegiak.** Guardia Zibilaren konplize. Tresna. Auzia amaitu da, baina injustizia ez.

**Z. Zauriak.** Kostako zaie orbantzen. Xalotasuna galdu genuen betirako.

**T. Testigantza.** Memoria. Kontakizuna. *Egunkaria auzia*-k —Egin, Ardi Beltza... ere— izan behar du kontakizunaren parte. Ez ahazteko modukoa da. Ez da ahaztu behar.

**U. Urdina.** Gure historiako eta bizitzetako unerik beltzenetakoaren kolorea; baina baita bidegabekeriari emandako erantzunarena ere. Kamiseta soil batek guztia biltzen du: *Egunkaria* aurrera!



Jakes Goikoetxea



Talai Mendiko zazpi kideak Balaitus mendiaren tontorrean . XABIER IRIBAR

## Balaitus mendia diagonaletik gora

Zazpi lagunak eta 3.144 metrora jomugan zuten tontorra. Diagonala izeneko bidetik Balaitus mendira igo ziren; ondoren, rappelatuz jaisteko. Hori larunbatean; eta igandean, Respumoso mendi-aterpean gaua igaro eta gero, geratzen zitzaizkien indarrak 2.654 metroko mendia, Musales, igotzen agortu zituzten.





Iratira joan ziren mendizaleak . TALAI MENDI

## Iratiko oihana udazken koloretan

Nafarroa Beherak, Zuberoak eta Nafarroa Garaiak bat egiten dute; Pirinioak ditu alde banatan. Orain dela 12.000 urte sortutako basoan zehar ibili ziren Talai-Mendi elkarteko mendizaleak urriko hirugarren aste-buruan.





# Zer gertatuko da azaroaren 9a eta gero?

Katalunia gora Katalunia behera dabilta hedabideak azkenaldian. Guk inguruan ezagutzen genituen katalanak elkartu, eta mahai baten bueltan jarri ditugu berriketan, xalo-xalo, horretaz guztiaz zer pentsatzen duten jakin gabe. Azaroaren 9an Kontsulta egiten lagako dieten ikusteko dago, guk, momentuz, berei egin diegu prozesuaz kontsulta.



### Javier Vilches Latorre

Les Borges Blanques, 1951. 34 urtean praktikante izana Aian. Erretiroa hartu zuenetik Zarautzen bizi da.



### Josi Roch Fabregas

Blanes, 1978. Orain dela 7 urte Donostiara etorri zen, eta orain dela 4 Oriora.



### Susana Llavina Farrés

Vic, 1976. Aian Mediku lanak egin zituen denboraldi batez, Zarautzen bizi da.



### Txus Sanchez García

Lleida, 1973. 8 urte daramatza Orion, eta aurretik beste bospasei ibili zen asteburuetako joan etorrian.

**TESTUA: RICARDO UZKUDUN ETA JABIER ZABALETA**

**ARGAZKIAK: JOSI ROCH, MONTSE ANDREU, SUSANA LLAVINA ETA KARKARA**

**N**ola bizi duzue Katalunian ematen ari den prozesu politikoa; urteak Orion, Aian edo Zarautzen bizi diren kataluniarrak zaretan aldetik? Zer sentimendu sortarazten dizue?

**Susana:** Nik distantziatik ikusten dut. Hemen erroldatua nagoenez, ezingo dut parte hartu azaroaren 9ko kontsultan. Pena handia ematen dit, ni gainera, *de la seba* deitzen diogun ingurukoa naiz, nolabait esateko, nazionalismo katalanaren epizentroa izan den ingurukoa. Nire familia osoa, manifestatziotara joaten den horietakoa da.

Beraz, atsekabea eta esperantzaren arteko sentimenduen artean bizi zara. Gainera, nire inguruan krisia ekonomikoak gogor jo du, eta horrek eragin handia izan du. Lehen, adibidez, Bartzelonara joaten nintzenean, ez nuen orain bizi den independentismo sentsaziorik antzematen. Nik hala uste dut behintzat, lehen horrelako ideia garbirik ez zuen jendeak, gaur egun, egoera ekonomiko txarraren ondorioz, independentismoaren ideia bereganatu duela.

**Josi:** Nik nostalgia handiarekin bizi dut, Katalunia momentu historiko bat bizitzen ari dela deritzot, gauzen norabidea aldatu dezakeen momentu historikoa. Eta triste jartzen naiz parte hartu ezin dudala pentsatze hutsarekin. Are gehiago, ikusita, aldaketa historikoa herri katalana ari dela gauzatzen, behetik gora ari dela dena mugitzen, oinarritik. Pena handia ematen dit ezin mugimendu horretan parte hartu izanak.

**Susana:** Ez duzue uste, oraintxe atsekabez eta oraintxe ilusioz bizitzen ari dela jendea?

**Josi:** Ez nuke esango. Nik uste oso borrokalarri gaudela, jo eta txikitzaera goaz. Estatua atzera bota zutenetik hasita, urte asko dira Madrildik adarra jotzen ari zaizkigula, eta nahikoa da! Borrokan jarraituko dugu, azken finean, demokratikoa den eskakizun bat gauzatu arte: Galdetzea zer izan nahi dugun etorkizunean. Ondoren, Eskozian bezala, ezetzak irabazten badu, ba, ni bezalako independentistak izorratu egingo gara, baina, sikiera, erabaki ahal izango dugu.

**Javi:** Nik, hemendik, baikortasunez ikusten dut. Urte asko daramatzat hemen, baina anaiak ditut han, oso borrokala-





riak dira, eta izugarritzko ilusioa dute. Herria danak emanda doala ikusten dute, udalerrri guztiak -%99a, PPko batzuketan- daude prest kontsulta egiteko, 30.000 boluntario daude, pasada bat da! Herri-mugimendu handi-handi bat dago mar txan, nahiz eta ez dakigun oraindik mugimendu hori nork gidatuko duen. Más ez da egokiena, Raxoi bezala da baina katalana; murrizketa asko egin ditu, eta jendea ez dago gustura.

Garbi dagoena da, hori guztia zerbaitetan bukatuko dela, ezin da geratu ezerezean, eta zerbait gertatuko da! Eta Euskadi, pentsatzen dut, mugimenduari lotuko zaiola.

**Eta zu, Susana, esaten ari zarenean atsekabetuta dagoela jendea, uste duzu CIUren estrategia aldaketa -Kontsulta originala atzera bota, eta alternatibo bat egitearena- izan dela desilusio hori sortu duena?**

**Susana:** Egia da, Josik dioen moduan, herria izan dela politikariak bide beretik bultzatu dituen. Baina, gero, ikusten duzu ez dagoela, politikarien artean, gurditik tiratzeko adinako indarra duenik. Hori da nire inpresioa, ez dagoela buru argirik, noraezean ote goazen maila politikoan, inprobisatuz.

**Lidergoa falta dela uste duzue?**

**Txus:** Lider bakarra dago, eta hori Oriol Junqueras da. Hau guztia, fundamentuz nonbaitea eraman dezakeen bakarra bera da. Artur Más, orain dela hiru urte lehendabiziko Diada masibo eta arrakastatsu hartan -CIU ez da inoiz, bere afan independentistagatik nabarmendu- egun batetik bestera, norbaitek bandera jaso behar zuela ohartu zen, eta jaso egin zuen. Inoiz nahi izan ez duen zerbait egitea tokatu zaio.

“Urtea asko dira Madrildik adarra jotzen ari zaizkigula, eta nahikoa da!”

“Udalerrri guztiak daude prest kontsulta egiteko, 30.000 boluntario daude, pasada bat da!”

“Espainiako Estatuak ezingo luke hemen, Euskadin, dagoen autonomia baina ezer gehiagorik onartu.”

“Hona etorri nintzenean, euskaraz hitz egitea nahi nuen: Ez hitz egin niri gazteleraz!”



Nola bukatuko den pelikula? Ez nuke ilusiorik zapuztu nahi, baina ez da ezer gertatuko. Barkatu, Katalunia osoak nahi duen ezer ez da gertatuko. Ni independentista naiz, ez nabil ezer justifikatu nahian –gaztetxotatik nabil mugimendu independentistetan–, baina ez da ezer gertatuko. Espainiako Estatuak ezingo luke hemen, Euskadin, dagoen autonomia baina ezer gehiagorik onartu. Nola bukatuko den hau guztia? Azaroaren 9an, ikaragarritzko indar erakustaldia egingo da, pasada bat izango da. Europa eta mundu mailan agertuko da herri katalanak zer eskatzen duen. Ondoren, hauteskunde plebiszitarioak egingo dira, ERCK egurra sartuko du, Oriol Junqueras aise nagusituko da bide batez, esan nahi nuke Oriol Junqueras oso tipo baliagarria dela, ikusi besterik ez dago nola hitz egiten duen, nola argudiatzen duen, izugarria da, ezagun du irakaslea dela! Madrila joango da negoziatzera, eta Madrilen Euskadin dugun autonomia maila bera lortuko du: Kontzertu ekonomikoa, fiskalitatea eta abar. Eta horrela, harri batez bi kolpe egingo lituzke.

**Susana:** Zuk uste jendea konformatuko dela kontzertu ekonomiko batekin?

**Txus:** Junqueras jauna Bartzelonara iritsiko da eta esango du: Jaun-andreok ahalegin guztia egin dut eta hauxe da lortu dudana, ez dago besterik. Eta lortzen duenaren arabera, jende askok onartuko du, Jaunari eskerrak emanez! Zeharo sinistuta nago horrela izango dela.

**Eta zer iritzi duzue PPren gobernua honetan guztian izaten ari den jarreraz?**

**Javi:** Onartezina da. Bere etorkizuna zein izango den erabaki nahi duen herri bati hori eragoztekoa onartezina da.

**Txus:** Gainera, argi eta garbi esanda, ez dela erreferendum bat izango, kontsulta ez lotesle bat baizik, ezertxo ere erabakiko ez duena.

**Josi:** Gainera, kontsulta deskafeinatu berria ere, atzera botako dutela esanez dabilta!

**Txus:** Baina hori ere galarazten badute, ridikulu galanta egingo dute. Orain dela bi egun, Masek planteatutako kontsulta berriaz barrez zebiltzan, eta orain hori ere galaraztera doaz. Zentzu gabekoa da dena!

**Garbi dagoena da, azaroaren 9an gertatzen dena gertatuta ere, gero hauteskunde plebiszitarioak izango direla. Posible ote da independentistak lista bakarrean aurkeztea?**

**Josi:** Keba. Kontsultarenean ados jartzea ia ezinezkoa izan bada, ba pentsa *Parlament*erako! Ezinezkoa ikusten dut.

**Atentzio eman dit Txus zure aurreko erantzunak. Konformatuko zinatekete Euskadik duen moduko autonomia maila eskuratuta?**

**Susana:** Ni ez, baina beldur naiz jende asko baietz.

**Txus:** Ni ez. Baina, gaur egun Kataluniatik Espainiara doazen 16.000 milioi euroak Euskadik duen kontzertu ekonomiko moduko batekin Katalunian geratuko balira, gehiengo bai.

**Baina, Junquersek dioenez, asmoa ez da hauteskundeak irabazi eta Madrila negoziatzera joatea; baizik eta egitekoan, alde bakarreko independentzia deklarazio bat egitea.**

**Josi:** Ni uste dut baietz, independenteak izaten saiatuko dire-

la. Bai edo bai. Gero, zer pasako den maila politikoan? Istilu handia sortu daiteke, eta okerrenetan okerrenean, gerra zibil bat. Baina, independenteak izaten saiatuko direla, hori seguru! Kokoteraino gaude! –katalanez atera zaio biraoa Josiri–.

Eta uste dut konfiantza izan behar dela herri katalanean, eta ez esan diruagatik konformatuko garenik, hori esanda gure buruari kalte egiten ari gara eta. Nik nire herrian sinisten dut, eta uste dut gehiagoren bila joango garela! Ondoren, Txusek dioen bezala, zerbait egin behar dela ikaragarrizkorik ez gertatzeko? Ez dakit, baina bitartean, independentziaren bila joango direla nola edo hala, hori seguru!

### **Eta uste duzue, prozesu honek guztiak, izango duela eragirik Euskal Herrian?**

**Josi:** Nik oso ahul ikusten dut Euskal Herriko mugimendua.

**Txus:** Oso eroso zaudete, besaulkian eserita. Langabezia tasa ez da hain altua, eta Espainian baina hazkunde handiagoa izango duzue aurten. Gauzak ondo doazen bitartean...

**Javier:** Nik ez nuke esango horren eroso zaudetenik. Euskal Herriak egurrea jaso du urte askoan, eta orain, beste borroka demokratiko bat egitea erabaki du, inongo indarkeriarik gabe. Lasai zaudete, baina bazoazte poliki-poliki. Momentu honetan, Katalunian jarriak dituzue begi eta belarriak, baina lanean jarraitzen duzue.

**Susana:** Baina pixka bat distantziatik, desmarkatuta, ezta?

### **Aian, Orion edo Zarautzen sentitu al duzue gai honekiko interesik? Jende askok galdetu al dizue Kataluniaren egoeraz kalean?**

**Josi:** Egunerokoan, parkean elkartzen garen amatxoeren artean, batek. Eta ostiraletako pintxo potean, pertsona bakar batek ere ez.

**Susana:** Niri hemengo koadrilan inork ez dit galdetu ezer.

### **Eta bukatzeko: Nola bizi duzue hizkuntzen kontua? Gutxi gehiago, euskara ikasten ari zarete. Eroso sentitzen zarete gizarte elebidun honetan?**

**Susana:** Ni oso eskertua nago. Zarautzen, normalean, euskaraz hitz egiten dut.

**Javi:** Ni beti ikasten. Euskara oso-oso zaila da. Zergatik dituzue bi subjektu? –kar, kar, kar... barreak mahaiaren bueltan–.

**Josi:** Ni oso ondo sentitzen naiz. Molestatzen nauen gauza bakarrahaxe da: Ander semearekin parkean banago –eta jakina nik Anderri katalanez hitz egiten diot–, ba askotan beste ama bat gerturatzerakoan gazteleraz hitz egiten dio Anderri. Sutan jartzen naiz. Hitz egiozue euskaraz mesedez! Errespetuaren kontu horregatik egiten dute, baina nik ulertzen ez badut nire arazoa da! Errespetu gehiegi duzue.

Nire teoria hauxe da: Hemen elebitasuna leku guztietan sartua dago, han berriz, nire inguruaz ari naiz, katalanez bizi gara. Kanpoko norbait etortzen denean bai, baina, gainontzean, han katalanak gara. Dena egiten dugu katalanez.

**Susana:** Eta, norbait kanpotik hara joaten bada, 2. minutuan katalanez ari zara berarekin, mesede bat egiten ari zarela sentitzen duzu. Nire senarrari horixe gertatu zitzaion, Katalunian sekula bizi gabe, katalanez ikasi beste erremediorik ez zuen izan –hizkuntza murgiltzea–. Niri ere, hona etorri nintzenez, euskaraz hitz egitea nahi nuen: Ez hitz egin niri gazteleraz! Putakeria bat da zuri gazteleraz hitz egitea.



## GOAZEN BOZKATZERA

**G**uztia 2012ko irailean hasi zen, milaka katalanek kalera irtetea erabaki genuenean, nahiko da esan eta Kataluniarentzat etorkizun berri bat erabakitzeko. Neronek, egun hori, beste ikuspuntu batetik bizi izan nuen, Euskal Herrian nintzen, Orion hain zuzen ere, orain sei urtetatik bizi naizen herrian.

Jakina, orduz geroztik, 2013 eta 2014ko egun berean, barne-muinetaraino katalana naizen aldetik, berriz ez huts egitea erabaki nuen hain esanguratsua den Kataluniako Diada egunean. Izan ere, Diada egunean Bartzelonaren erorketa gogoratzen da Borboitarren eskuetan, Berwick dukea buru zela, Espainiako Oinordetzaren Gerran, 1714ko irailaren 11n, milaka katalan hil ziren borroka.

Sei urte hauetan, esan dezaket Euskal Herriaren eta Kataluniako herriaren arteko gertutasun idealista asko bizi dudala, askotan afinitate sakon eta zuhur, eta iritzi konplizitate batetik.

Prozesu soberanista horretan, eta azaroaren 9ko kontsultan, ezin bozkatu izanak etsipen sentimendu handia dakarrit. Orion erroldatua nagoenez, ez daukat bozkatzeko eskubiderik, eta uste dut Kataluniako Gobernutik guk botoa ematea erraztu beharko liguketela.

Eta badakigu azaroaren 9a, Espainiako Gobernutik jarritako urritasunak urritasun, ezin dezakegula desaprobatu, eta batzuei gustatu edo ez, kalera aterako gara, botokutzak protesta paperez beteko ditugu legezko eta adostutako kontsulta ezin egin izan dugulako.

Protagonismoa jendearena izan da, eta protagonismoa baldin badaukazu, ardua bat daukazu, eta orain gure ardua da prozesu honekin jarraitu eta azaroaren 9an bozkatzera joatea.

**Montse Andreu Barnils**



## OSPAKIZUNA



## Zorionak Antonio eta Juncal

Juncal Martinez de Lahidalga eta Antonio Gonzalez 1964ko irailaren 26an ezkondu ziren. 50 urte pasatu dira aldarean bien arteko maitasuna egonkortu zutenetik, eta familian ospatu zuten urrezko ezteia. Zorionak bikoteari!



## Zorionak Jone eta Beñat

Irailaren azken larunbatean ezkondu ziren Beñat Solaberrieta eta Jone Arruabarrena. Loiolako basilikan egin zuten elizkizuna lehenengo eta Itziarko Salegi jatetxera joan ziren bazkaldu eta ospakizunarekin jarraitzera. Egun ederra pasa zuten bikoteak senide eta lagunez inguratutik. Zorionak bie!

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

Zeure buruari eskatu behar diozu janarietako errazioak txikitzeko. Pisua galtzeko ez duzu goserik pasatu behar, inbidia pasatu behar duzu. Zure gorputza azkenean en-gainatu egiten duzu.”

**Itziar Olasagasti**, Nutrizionista, Gipuzkoako hitza, urriaren 10a.

“Etxeko giroan izan zen Citizen Kane-ren azken kontzertua. Jende ezagun asko, lagunak hor ziren. Nik behintzat asko gozatu nuen kontzertuaz.”

**Martin zulaika**, Citizen Kane taldeko abeslari ohia, Euskadi Irratia, Hiri Gorria, urriaren 8a.

“Kilometroak jaiaren egun handia eta gero, uste dut, erriari h-a bueltatzeko garaia dela. Kanpotik begiratuta igande handi horretan protagonista nagusia izan baitzen Euskal Herria; eta barrutik begiratuta, Orioko herria.”

**Xabier Sukia**, EITBko kazetaria, Euskadi Irratia, Hitzen abizena, urriaren 7a.

“Momentuz, marka hobetu dut eta saiakera pasatu da. Gerora begira, bada, pentsatzen dut ahaleginduko naitzela lortu berri dudan marka hobetzen.”

**Idoia Etxeberria**, Harri-jasotzailea, Sasoian.info, urriaren 13a.

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77  
Fax: 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihok.com  
Arrantzale Kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)

**TRAGOXXA**  
TABERNA  
Danny & Angeles

Almirante Oa, 1 behe. ORIO | ERRESERBAK - Tf. 943 508 042

# Bidelapurrak

**Izenburua irakurrita batek baino gehiagok pentsatuko du bidelapurren kontua aspaldiko garaietara mugatzen dela. Nik ere hala uste nuen, baina azken garaiotan ikusitako jokabide batek zer pentsatua eman dit.**



Eli Huegun

**E**urkoan moila bazterretik beharrezkoak diren baserri bazterretik idatziko dizuet. Izenburua irakurrita ba-

tek baino gehiagok zalantza egin ahal izango duzue zeri buruz ariko ote naizen idazten, bidelapurren kontua aspaldiko garaietara mugatzen dela ulertuta. Nik ere hala uste nuen, bai inguru hauetan behintzat, baina azken garaiotan ikusitako jokabide batek zer pentsatua eman dit, eta ezin naiz isilik geratu.

Baliteke fruitulapurra izendapen egokiagoa izatea, ostutako ondasunak zuhaitzetako fruituak eta baratzetako barazkiak direlako.

Landagunean bizi garenok, izan baserri nahiz bestelako etxeetan, ohikotasunez izaten ditugu baratzea edota fruituarbolak etxe inguruetan. Ohikoa izaten da, baita ere, etxe inguruetan jendea ikustea, kotxez nahiz oinez, ehizan, paseatuz edo funtsean, beste nonbaiterako bidean.

Mendia denona da, eta bertako errepideak ere bai –normalean behintzat–. Ingurunea erabiltzeko eskubide osoa izan arren, askori ahaztu egiten zaie bertako fruitu nahiz barazkiek jabea dutela, eta gehienetan, urte osoko lanaren

emaitza izaten direla. Ez dut esango parean pasa eta gerezi eskukada bat, sagar, udare, edo aran pare bat hartzea gaizki dagoenik, baina hortik sakelatik plastikozko poltsa bat atera eta goraino betetzera alde handia dago.

Udazken betean gauden honetan, tamalez esan behar dut, arrunta bilakatu dela jendea hur eta intxaurrez goraino betetako poltsak eramaten ikustea, eta hori ez da onargarria. Askori alderaezina egingo zaizuen arren, kalean leihoan freskatzen jarrita dagoen bizkotxoari pusketa bat hartzea bezala ikusten dut nik.

Ez dut orokortu nahi, eta ez dut esango mendira joaten den guztiak bertakoekiko hain begirune gutxi daukanik. Baina jarrera honetako jendea gutxiengo izan arren, ziurtasunez esan dezaket egunerokotasuneko irudia izaten dela. Gauzak horrela, mendi ingurunean zuhaitzetatik zintzilik dauden jaki horietako bat jateko gogo sartzan bazaizue, hartu eta jan, eta baserriarra edo etxejabea inguruan ikusten baduzue hari eskatu, ziur nago eskuzabal emango dizue.

Mendia denona da, bai, baina baratzeak eta zuhaitzak ez. Errespetuz jokatu.

Ile apaindegia

## MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo  
Tel. 943 13 47 29  
Orio

## URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Ion Lertxundi

## Edukazioa...

**Gaur egun, hainbeste eskola dagoen honetan, oso kezkarria da ikustea edozein momentutan lurrera nola botatzen ditugun zakarrak.**

Edota errespetua, begirunea, ardura... Hainbeste gai biltzen ditu, zein den bata bestea baino garrantzitsuagoa esatea oso zaila gertatzen biltzait. Baina zerbait seguruago nago esatean *gutxiago* edo dagoela. Zenbaitetan kaixo, egunon, iepa, ieup esatea, edota eskerrik asko, mesedez eskatzea oso garesti dagoela dirudi, niri behintzat bai. Hori ere edukazioa dela uste dut nik.

Gaur egun, *hainbeste* eskola dagoen honetan –etika, osasuna, ingurugiroa, eta abar–, oso kezkarria da ikustea edozein momentutan lurrera nola botatzen ditugun zakarrak, dela gozokien bilgarriak, zigarro hondarra, kirolari batek *barritaren* –edo dena dela esaten denaren– bilgarria, eta abar. Baita ere, beste batzuetan, iturrira joan eta ura alferrik galduaz umeak jolasean dabiltzanean, inongo horren ardurarik ikasten ez dutenean, eta inork, helduok, kontuak eskatu gabe uzten ditugunean –ume horien aita-amak non ote dabiltzan pentsatzen, esaten dugu sarritan–. Iseka eta besteengatik gaizki esatearena zer esanik ez. Adibide horiei berriz edukazio falta edo txarrekoa dela diot, bai norbere utzikieriatatik eta baita besteekiko begirune ezagatik.

Baina ez nuke adierazpenetan bakarrik gelditu nahi. Askotan pentsatzen jartzen naiz *gutxiago* izate hori zergatik ote den. Ongizate, erosotasun maila *dezente* hontara iritsita –nahiz eta krisiak gogor jo–, erraz bizitzearen ondorio ez ote den pentsatuta nago, nahikotasun horretan besterik eta besteen beharrik ez izatearen ondorio *ni ondo natxiok eta bestearenak ia ez didan ziprztintzen*.

Hala ere, ustea daukat, lehen, orain eta gero ere ez dela kanpotik ematen zaigun zerbait izango, edukazioa alegia. Etxetik hasita eta kanporantza, lan egin beharko dugu besteekiko ardura eta begirunea erakutsiz. Askotan egiten baitugu norberak egin ez eta besteei egiteko eskatzea. Eta bai, noizean behin besteen umei ere errita piska bat egin edo kontuak eskatzeak –norberarenari zer esanik ez– ez digu denoi kalterik egingo. Noski lehenik bere guraso edo arduradunak eginez gero onena.

Lerro hauekin ez da nire intentzioa inori inongo irakaspenik ematea, horretarako lehenik gai izan behar delako, eta hori pentsatze hutsa handikeria iruditzen zaidalako. Baina bai esango dut gogoeta hauek gogorarazi eta hausnartu beharra dauzkagula denon onerako.

**OREKA  
FISIOTERAPIA**

TENDINITISAK  
LUMBALGIAK  
ARTROSIA  
ZEFALAK ...

MASAJE TERAPEUTIKOA  
BENTOSAK, AKUPUNTURA  
ESKUZKO TERAPIA  
OSTEOPATIA

943 13 35 37

ARTEZAGA KALEA, 11 BERRIA

**SARASUA ERRETEGIA**

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORJO** Tel: 943 83 00 05/  
943 13 25 32



*eduzitegia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

**KATUA**  
 taberna

Tipi-tapa, tipi-tapa, kaiwara  
 bokata ederrak jatera

Anbarko portua 35, behea  
 Tf: 943 840 060

**ARISTERRAZU**  
 jatetxea

Andatza auzoa AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**LOBETXU** **JATETXEA**

Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

**Gabon**  
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

**ZABALIKI  
 PROBATU  
 EZAZU!**

**PIZZERIA**

**KALETA**

ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**

Pelotari 5, Orio  
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**ITZALA**

*kartela jokatzen  
 atropoia*

tel. 943 83 12 59

Kinkladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonet.com/argine  
 Tel. 943 13 48 89

75eko DESKONTUA FAMILIA  
 UGARIEI TXARTELAREKIN

*Lizaso  
 dekorazioa*

**Tf:**  
 943 83 07 84

**Faxa:**  
 943 24 87 15

**Eusko Gudari, 48**

**ODITZ**

*Emasa zahaleko sinesak  
 gogor eta osasunetsuak*

tel. 943 83 00 89

**URAITZ**

*kurintologia  
 jantzi sagarriak*

Euzkadi 3 Tf: 943 83 18 97

**libe**  
 dietetika  
 elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO 943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
 [ sarrera Amantzale kalea ] libegarmendua@gmail.com

**kutixi**  
 kafetegia  
 GOSARI GOIXOAK

Antzaga 9, 20810 Orio  
 Tf: 943 53 15 17

**ITZIAR**  
 kirolak

Tel. 943 83 31 03

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



1936ko gerran hildako oriotar batzuen senideak, bi bandoetakoena, haiek gogora ekartzeko ekitaldian.

# 1936ko gerraren oraingo ubera

## Oroimenaren kutxa

**H**iru urte eman ditut 1936ko gerraren ubera Orion –Gerrabat barruan degula liburu osatzen: istorioak entzuten, galderak egiten, dokumentuak bilatzen, artxiboak miatzen, liburuak irakurtzen, argazkiak biltzen...

Liburuak 1936ko gerrak Orion utzitako ubera azaltzen digu, herrian lagatako arrastoa. Atzeko azaleko testuak dio ubera mingarri eta tristea izan zela hiru urteko gerrarena, urte askoan iraun eta oraindik ere eragina duena. Liburuaren hiru urteko bideak ere ubera laga du niregan eta beste zenbaitengan. Baina liburuak justu gerraren alderantzizkoa, nigan behintzat: positiboa eta pozgarria. Anjel Lertxundiren *Paper festa* liburutik hartutako testuan galdera hau dator: *Non lurperatu gure hildakoak, ez bada hizkuntzan?* Horixe egin nahi izan dugu liburuaren bidez: hildako guztiak hilobiratu, eta haien senideak, behingoz, bakean utzi. Horretarako, beharrezkoa zen Orioko Udalak Teodoro Mitxelena zenaren familiari 1936ko Udalak egindako okerra aitortzea. Eta horixe egin du, aitorpena aho batez eginez, alderdikierarik gabe.

Herritar askoren auzolan handia izan da liburu osatzeko bidea. Testuak bi bandoetan hildakoen berri jaso du. Bi bandoetan ibilitakoen senide gehienek lasai azaldu dituzte be-

ren istorio, min eta atsekabeak. Bi bandoetako senideak izan ziren liburuaren aurkezpen-saioan, baita gerran hildakoak gogora ekartzeko saioan ere, elkarren ondoan eserita.

Egia da, nabarmena izan da, gerra galdu zutenen senideek premia handiagoa zutela hitz egiteko, urte luzetan isiltasunera behartuta egon baitira, gizarteak isildu egin baititu. Horren arantza sartua zuten eta hura atera beharra zegoen, zauria sendatzeko; eta hildakoak hizkuntzan hilobiratzeko aha-lerinak horixe ekarri die: zauriaren samina leundu die.

Gerrak ekarritako 22 hildakoetan, irabazleen aldekoek denek izan zuten, banan-banan, hileta-elizkizuna Orioko elizan. Gerra galdu zutenen aldeko hildakoek, berriz, ez zuten tokirik izan orduko elizan, batek ere ez. Horixe eskatuko zuen orduko aginte politiko-militarrak. Baina oraingo apaiz Unai Manterolak lagunduta, iritsi gara Elizbarrutiko artxi-bora. Han arakatu ditugu gerra urteetako hileta-elizkizunen datuak, eta horrela atera ditugu gerrako bi bandoen arteko desoreka latz horren berri, ondorio triste hori. Oraingo elizak, oraingo apaizak, gogora ekarri du urriaren 26ko meza-ren barruan Mitxelena hilketa, Getariko kanposantuan hil eta 78 urtera, orduko elizak isildu eta hiletarik gabe utzia.

Herriak, lehen ere, gerra ondoreneko urte gogor haietan, jakin zuen gerra atzean utzi eta, mendekurik gabe, elkarbizitza eraikitzen, aurrera egiten; orduko erregimen politikoak erabateko errepresioa ezarri arren, gobernu, udal, eliza, eskola eta guardia zibilen bitartez.

Orain, horrenbeste urte pasatu eta gero, oraingo udalak eta elizak jakin dute beren aletxoak jartzen, herriak aspaldi abiatutako elkarbizitza baketsuaren bidean. Liburu ere bide horretako aletxo bat izateko sortua da: barruan genuen gerra kanpora ateratzeko, haren ubera tristea azalduz orain ubera pozgarria uzteko.

# %25 distantziara urte betera jarritako helburua



Kaia kaleko zaborrontziak, moilan . KARKARA

%27 zen birziklapen tasa 2011an; 2012an, %31; 2013 urtean, %36; orain, %40. Urte bete barru %65 birziklapen tasa lortzea adostu zuten hiru alderdiek. Urtetik urtera datuak hobetuz joan dira eta udaletxetik zintzilikatzen duten kartelean zenbakiak aldatuz joan dira ia hileroko. Udaran behar bada izan zuten eta %45 zegoen zenbakia egungo %40 izatera pasa da.

## Bildu: Handitzen, bai?

Baliabideak jarri dira denon esku baina oraindik urruti dago helburua. Lanean ari gara: Errefusa ere Mankomunitateak jaso beharko luke, beste frakzio guztiak biltzen dituen bezala. Kale garbiketarekin ez du batere soluzio errazik: Azken urteotan azpiegitura asko egin dira Orion, baina nola mantendu behar ditugu? Plazak, kaleak eta eraikinak egin dira, baina bideragarritasun azterketarik ez.

## Nola iritsi adostutako helburura?

Oriotarrok gutxienez %65 birzikla dezagun nahi dute eta hainbat kanpainen bidez erraztasunak ematea izan da Udalaren egitekoa. Organikoa sailkatzeko kuboak banatu zituzten herritarren artean, baita elkarteetan ere. Birziklatzen irakatsi zuten herritarrei ikastaroen bitartez eta arrandegietan tupperren erabilera bultzatu dute.

## Orain: Benetan ala penetan?

Materialen birziklapena gogoz eta benetan hartu dugu ala era ahulean eta penetan? Tabernek, jatetxeek, enpresek eta abarrek birziklatzeko nahikoa informazio eta baliabide jaso dute? Adostu den %65eko helburura iristeko, hartzen al ditu Udalak neurri zuzentzaileak? Herritar gisa, zure ahalegina nahikoa izaten ari al da? Hauteskundeetako kanpainaren zain al gaude berriro ere gaia aurpegiatzeko?

## Errefusara birzikla daitekeena

Joan den ekainean karakterizazioa egin zen Orion, kalean, bi edukiontzirekin. Osotara 148,15 kg hondakin bildu ziren. Zaborraren % 51- erdia baino gehiago- organikoa zen, % 18 errefusa eta beste batzuk, %17 ontzi arinak, %11 papera eta kartoia eta %3 beira. Hori errefusaren bi ontzietan. Ez dagokion edukiontzira botatzen da organikoa, eta beste zaborrarekin nahasteak, kalte handiak dakartza.

## Auto eta auzo konposta mugarri

Autokonpostan jarri du orain arte begia Orioko Udalak, ekainetik aurrera auzokonpostan ere ipini zuen fokua, organikoarekin konposta eginez gero hainbat arazori izkin egingo baizaie. Orion 57 familia ari dira hondakin organikoarekin konposta egiten, 27 etxe-ko konpostagailuarekin eta 30 auzoan.

## Duela 15 urteko egoera berean

Birziklatzea sustatzeko kale edukiontzien mapa hainbatetan berriro da. Kale garbiketa, ordea, orain dela 15 urte bezala dago, kontratu berdinarekin. Garbitu beharreko gune berriak egon arren -Baxoalde, Azkue, Munto eta Abaromendi- langile kopurua eta lan baldintzak ez dira aldatu. Urtean zehar 3,5 dira lanaldiak; udaran, 2,5 gehiago.

## EAJ: Ahalmenik ez

Herriak egun duen tamainari egokitu-tako zerbitzu bat behar du. Ia lau urte izan ditu udal gobernua hondakinen bilketa eta kale garbiketa beren gustura diseinatzeko eta ez da ezer egin. Ondorioz, kalek oso zikin itxura dute eta birziklapen gune batzuk oso itxura desegokia dute gaur egun. Honi guztiari, tarteka ematen diren jarrera narrasak eta bandalismoa batzen bazaizkio, aurre hartu beharreko arazo baten aurrean gaude.



## ■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

## Antzerkia ingelesez eskolan



Urriaren zazpian, antzerkia ikustera joan ginen HH 5ekoak eta LHko ikasle guztiak. Emanaldia Aiako kultur-etxean izan zen eta Alan izeneko aktore eta musikari eskoziarrak eskaini zuen. Gizon hori eskolaz eskola ibiltzen da. Ikasle batzuen laguntzaz antzeztu genuen istorioak *Cowboy soup* zuen izenburua, eta gose handia zeukan neska bakero baten gorabeherak kontatzen zituen. Emanaldia asko gustatu zitzaizgun eta dena ulertu genuen.

## ■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA


## Zaraguetako zizarea



Lehen, bigarren eta hirugarren mailako neska mutilak joan den urtean beza la bizikletaz eta oinez joan dira igerilekura. Aurten bizikleta gehiago erabili dituzte, 60 bat bizikleta. Hainbeste direnez bi txandatan joan behar izan dute. Zizare erraldoien antzera herria zeharkatzen ibili dira hilabete oso batean. Gure zizareek urriaren 17an aurten goazken ibilbidea egin eta ezkutatu egin dira datorren urtera arte. Gure baratzean ezkutatu ote dira?

## ■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

## Udazkenaren altxorak Oiangu Parkean.



Urriaren 17an, HH4 eta HH5 mailakoak udazken egun ederra igaro genuen Ordiziako Oiangu Parkean. Orbelaren kris-kris artean basoan zehar ibili ginen eta urtaro honek eskaintzen dizkigun koloreez gozatzeko aukera izan genuen. Gustura ibili ginen hostoak, gaztainak, perretxikoak eta ezkurak biltzen. A ze ezkur pila zegoen! Esaera zaharrak dionez: ezkur urtea, elur urte! Hala ote? Argazkian duzue 4-5 urteko ikasleek idatzitako albistea.



Naroa Miralles

## Haurrak helduen eredu?

**O**rion, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta herriko bi ikastetxeek egitasmo bat jarri dute abian. Honen helburua, helduen euskararen erabilera zabaltzea da, horren seinale dira haur parkeetan ikus ditzakegun kartelak.

Helburu honi hasiera eman aurretik, LH-ko hainbat ikasleek galdeketa bat bete zuten beren gurasoekin. Emaitzak jaso ondoren, hainbat ondorio atera dira: familia gehienetan, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egiten diete eta anai-arrebak beren artean ere euskaraz mintzatzen dira, baina bestaldekik, helduak kalera irtetean beren artean gazteleraz hitz egiteko ohitura handia dute, eta hori datu negatiboa da.

Ni euskalduna izanik, beharrezkoa ikusten dut ekintza hori abian jartzea. Askotan, helduek gazteoi atentzioa deitzen digute sare sozialen erruz, adibidez, erdarakada asko erabiltzen ditugulako; baina inkestaren emaitzak kontutan izanda, argi ikusi dugu helduak direla euskara erabiltzen ez dutenak.

Hori dena kontuan hartuta, ohartuko gara, egoera honek konponbide bat behar duela, eta kasu honetan, Udalak eta bi ikastetxeek bete-betean asmatu dutela proiektuarekin; horregatik zorianak eman behar zaizkielakoan nago. Baina, egitasmoa ez da nahikoa, horregatik, bai helduok eta baita gazteok ere, euskaraz jardun behar dugu uneoro, horrela Orio osoan zehar euskara sustatuz eta indartuz.



**azkue**  
**karrozeria**


Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com



Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODOLOGIA ZENTROA

tel/fax: 943 89 00 69  
Bikaina kalea, 4. 20 800 ZARAUTZ



ITURGINTZA\_BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA  
Presupuestak kopiatuak gabe

**MENDIZABAL**  
**ARROZTEGIA**  
*Nearriko armariek  
eta egurrak*

943 831 175 Altxeri bidea  
645 708 491 Beti-Aloi etxea  
mend@aroztegi.net 20810 Aia-Orio



**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorra, txarizo, krokotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**SU**  
**KIA**  
TABERNA JATEKOA

On egu eta gero... hartu KOPA eta TOPAZ!

- OLASKO EBREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF. 943 892 128  
ABANOMENI 36, 1. BARRA



**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaiak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80 / Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL.F - 943. 572083  
FAX - 943. 571190  
Lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
IBAI ONDÓ 13  
20810 ORIO

**XS**

erakuntza zerbitzuak  
errehabilitazioak  
obrak  
proiektuak  
txostenak  
ITE-ak  
eraikinen mantenua

arKiteKtura  
herrikobarra 6, zarautz

Borja Agirresarobe Lopetegi  
**635 731 722**



gizarte  
**kutxa**



**2GURPIL**

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

943 635 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

# Hiru, hiru eta bat, hiru eta hiru laurden



Hiru antzelaneko hiru aktore. GOIENA

## Kritika Hiru

**Antzerkia**, 'Hiru' lana urriaren 10ean izan zen Orioko Kultur Etxean

**H**iru. Astoreka, Gojenola eta Elordi: hiru lagun ama izateko gogoz. Bizitzari norabide berria jar-tzea xede, orain artekoa atzean laga eta elkarre-kin egin dute salto amatasunaren itsasora; aita-tasunaren olatuak zipristindu gabeko itsaso barera joan nahi eta galerna etortzen zaie, ordea.

Hiru eta bat. Gurrutxagak gogoz eragiten ditu barealdian olatuak. Hiru emakumeak bereganatzen ditu; sexualki nahiz emozionalki; hirurak. Espermatzoide eta obuluen arteko bilkura hotz hutsa izan behar zuena, di-da berotzen da.

Hiru eta erdi. Gustura ikusteko lan komikoa da: erraza, ari-na. Azpimarratzekoak: inprobisazioak emandako ukitu fres-koa (bonboiak lurrera erortzean –ez botatzean– ; edalontzi bat haustean), antzerkiaren izaera bizia azaleratuz; gustatu zitzaidan nola egin zuten aktoreek. Hiru puntu horretan. Baina ez ninduen asebate gizonaren ahots-jolasak. Futbole-an antzerkian baino gehiagotan aritua izaki, baloiarekin urruti iritsi zelako, antzerki munduan denbora gehiago emat-ea bidezkoa da; ea hurrengo saioan Championsen ikusten dudan!

LORE BERASALUZE

# Pilota oinarrian eta hitza moldean



Pilotarhitza ikuskizuneko sortzaileak. KARKARA

## Kritika Pilotarhitza

**Ikuskizuna**, Mixel Etxekoparen obra egin zuten urriaren 17an Orioko Kultur Etxean, 22:30ean.

**P**ilota dantzan eta dantzaria pilotan. Mezua, pilota-ren izana eta esanahia; modua, bertsoa, musika eta dantza. Hitza, tarteka, hizpide. Kantua, noiz-behinka, bide.

Bi bertsolarien bat-bateko elkarrizketa, Xabier Sukia eta Mixel Etxekoparen artekoa. Musika inprobisatua, barne bo-rroka dantzatua. Emanaldi garaikide ausart bezain ederra.

Kulturaren etxea adineko *kulturetz* bete. Hala beharrez joandako nerabe bat, lau bat gazte eta anitz heldu. Guztira, 95 ikusle inguru; horietatik 80 mende erdia betetakoak. Eta gazteak, non daude gazte-oriotarrak?

Kulturaren sokari-tiraka jarraituko duten gazte sortzaile-ak behar ditu Euskal Herriak eta kontsumituko duten gazte kulturzaileak.

*Zer litzateke Euskal Herria pilotarik gabe?* galdetu zuten lerro artean. *Eta zer litzateke euskal-kultura ikusle gabe?* gal-detzen dut nire honetan.

OLATZARTOLA





## Gizartea Fashion week, aste osoko egitarau oparoa

Azaroaren 15ean hasi eta, astebetetz, moda izango da hizpide Orion. Lehengo urteko ekitaldi arrakastatsuen errepikapenarekin emango zaio hasiera. Pasarela bat, oriotarren moda eskaintza eta oriotar ugari modelo lanetan. Guztira Orioko hama-bi dendatako arroparen erakusleiho izango da desfilea eta dendan horietan jarriko dituzte salgai sarrerak bi euroren truke. Herriko arropa denden salmentak hobetzea eta Orio piztea dira ekimenaren helburuak.

@ karkara.com/aiaorio/1414169395539



## HASI TXIOKA

## Kilometroetako ale berezia gustatu al zitzazun?



### Gizartea

#### Denboraleak eragindako kalteak herritarrek kaltetuko ditu

Pasa den neguan denboraleak bortizki jo zuen euskal kosta. Kalteak ekarri zituen Orion, larriena, barraren haustura. Ordutik, kai-muturrean zulo handi bat dago. Berriz ere negua datorkigu gainera eta barrak konpondu gabe jarraitzen du. Portu zuzendaritzari dagokio barra berregitea; baina diseinatutako proiektuaren arabera beren asmoa ez da barra berregitea, eraldatzea baizik.

### Hezkuntza

#### Ikastetxeak curriculuma osatzen

Lehengo ikasturtean egindako lanari jarraiki, Orioko Curriculumeko kideek osatuta dituzten txostenak ikastetxeetara bidali zituzten irakasleen proposamenak biltzeko. Arlo ezberdinetako aditu oriotarrek edukia zedarritu ostean; orain, ikastetxeetako irakasleei heldu zaie ekarpenak egiteko txanda. Abendu erdialdera bitarteko tarte izango dute dokumentuak lantzeko.

### Kirola

#### Dardoen mundialean izango da Unanue

Lau pertsonak osatzen dute taldea: Rafa Mellado, Jon Mernio, Pablo de la Fuente eta Joseba Unanue oriotarra. Lauak joan dira Las Vegasera munduko txapelketa jokatzera, pasa den urtean Alacanten irabazi zuten espainiar estatuko txapelagatik. Lauko taldean lehiatzeaz gain binaka eta bakana ere lehiatuko dira. Urriaren 31an hasiko zen txapelketa eta urriaren 2ra arte luzatuko da.





## Politika

### Sormena eta demokrazia uztartuz herriari balioa ematen

14 pertsonak osatzen dute Kimmu eta bakoitzaren helburu pertsonalak komun bihurtuta aurrera ateratzea da enpresaren xedea. Proiektuen inkubagailu bat da eta Eñaut Martí Democreativity izeneko proiektua garatzen ari dira. Sormenaren bitartez herria demokratizatzea du helburu, herriko arazoei teknika ekintzaileak erabilia konponbidea bilatzea. Proposamen horiek udalean aurkezten dira eta emaitzaren zergatia jakinarazten zaio herriari.

@karkara.com/orio/1413182931735



## Festak

### Sorpresa politak sanikolasetan

Ostirala tokatu da San Nikolas bezpera. Festa herrira zabaltzeko deia darraren aurretik herri kalejira egitea lantzen ari dira taldeak. Jarraian, Idoia Etxeberriaren errekor saiakera izango da herriko plazan. San Nikolas egunak ekarriko ditu nobedade gehien, apuntatu agendan: betiko ekitaldiez gain herri bazkaria antolatu da kiroldegian. Lau lan-talde antolatu dira herri bazkaria txukun prestatzeko eta sarrera erosten duenak arduratalde batean hartuko du parte. Horrez gain ez dira faltako Dantza txapelketa historikoa, soka dantza, hamargarren urteurrena betetzen duen bertso saioa. Xehetasun gehiago, hurrengo alean.

@karkara.com/orio/1414488176959

## Kilometroak 2014 eguna hamabi bideotan bilduta



@karkara.com/orio/  
1413371571558



## Goiko kaleko festen 10. urteurrena iruditan



@karkara.com/orio/  
1413272739842



## Extremadura ezagutu dute Babeslekukoek



@karkara.com/orio/  
1412748911730



AGENDA

Orio

Hitzaldiak

- Azaroaren 3an, *Su gainean ibili* hitzaldia, 19:00etan, Salatxo aretoan.
- Azaroaren 7an, *Biodeskodeketa* hitzaldia, 22:00etan, Mandalararen lokalean
- Azaroaren 14an, Erregistro Akashikoen inguruko hitzaldia, 19:30ean, Mandalara taldearen lokalean.

Musika

- Urriaren 31n, Xabier Lizasoren piano kontzertua, 22:30ean, Kultur Etxean.
- Azaroaren 7an, Gure Bazterrak aurkezpen ofiziala, Buffalo taldearen kontzertua, 22:30ean, Kultur Etxean.
- Azaroaren 15ean, Perlak taldearen kontzertua, 22:30ean, Kalakari Tabernan.
- Azaroaren 19an, Santa Zeziliaren ospakizuna. 17:00etan, ikasleen kalejira. 19:00etan, kontzertua, Kultur Etxean.
- Azaroaren 21a, Anariren kontzertua, 22:30ean, Kultur Etxean.
- Azaroaren 28an, Organo kontzertua, 20:30ean, Bariko San Nikolas elizan. Organo-jotzailea: Alize Mendizabal.
- Azaroaren 29an, Gure Bazterrak jaialdia, 20:00etan, Karela Kiroldegian.

Euskaraz bizi-bizi jardunaldiak

- Azaroaren 5ean, Pello Jauregiren hitzaldia, Salatxo Aretoan, 19:00etan
- Azaroaren 10ean, *Euskara, ospeletik eguterara* hitzaldia, Kultur Etxean, 19:00etan. Hizlaria: Dabid Anaut.
- Azaroaren 12an, *Nola aktibatu hiztunak?* mahai-ingurua, Salatxo Aretoan, 19:00etan.
- Azaroaren 19an, *Nola ikusten gaituzte arnasmuneetan bizi ez diren euskaldunek?* mahai-ingurua, Salatxo Aretoan. 19:00etan.

- Azaroaren 26an, *Eta Orion, zer egin dezakegu hiztunak aktibatuzeko?* mahai-ingurua, Salatxo Aretoan, 19:00etan.
- Azaroaren 10etik 23ra, *Euskara, ospeletik eguterara* erakusketa Kultur Etxean.

Fashion week

- Azaroaren 15ean, *Orio Fashion Week* desfilea, 18:00etan, Karela Kiroldegian.
- Azaroaren 17tik 22ra, *Fashion Week* moda astea.

Besteak

- Azaroaren 4an eta 18an, San Nikolas jaiak antolatuzeko bilerak, 18:30ean, Kultur Etxean.
- Azaroaren 11n, 14an, 15an eta 16an, San Martin Jaiak.
- Ostegunero English Chat, Antilla jate-txean, 17:00etatik 19:00etara.

Aia

XIII. Kintopeko Idi Probak

- Urriaren 31tik azaroaren 4ra, XIII. Kintopeko Idi Probak, Aiako probalekuan.

Erromeria

- Azaroaren 1ean, Kupela taldea, Andatzan, 18:30etik 21:30era.

Bilerak

- Azaroaren 6an, auzo eskolaren bilera, 21:00etan, Uhartemuño Elkartearen.

Gaztain eguna

- Azaroaren 9an, gaztain bilketa 17:00etan eta gaztain jana 18:00etan.

Podologoa

- Azaroaren 23an, podologoaren kontsulta sendagilearen etxean. 943131144

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	11:05 eta 23:54	04:35 eta 17:25	☾
02	12:22 eta ____	05:53 eta 18:36	☾
03	01:03 eta 13:27	07:01 eta 19:36	☾
04	02:00 eta 14:21	07:58 eta 20:27	☾
05	02:48 eta 15:09	08:48 eta 21:13	☾
06	03:33 eta 15:54	09:34 eta 21:56	☾
07	04:14 eta 16:36	10:17 eta 22:37	☾
08	04:54 eta 17:16	10:59 eta 23:16	☾
09	05:34 eta 17:56	11:40 eta 23:55	☾
10	06:13 eta 18:36	12:21 eta ____	☾
11	06:52 eta 19:18	00:35 eta 13:04	☾
12	07:35 eta 20:04	01:17 eta 13:50	☾
13	08:23 eta 20:59	02:04 eta 14:42	☾
14	09:22 eta 22:07	02:59 eta 15:43	☾
15	10:33 eta 23:23	04:05 eta 16:52	☾
16	11:46 eta ____	05:17 eta 17:59	☾
17	00:29 eta 12:48	06:23 eta 18:56	☾
18	01:21 eta 13:37	07:17 eta 19:42	☾
19	02:04 eta 14:20	08:02 eta 20:23	☾
20	02:43 eta 14:58	08:43 eta 21:01	☾
21	03:19 eta 15:36	09:21 eta 21:39	☾
22	03:55 eta 16:13	09:59 eta 22:16	☾
23	04:31 eta 16:51	10:38 eta 22:54	☾
24	05:09 eta 17:31	11:19 eta 23:35	☾
25	05:50 eta 18:14	12:02 eta ____	☾
26	06:34 eta 19:02	00:18 eta 12:48	☾
27	07:23 eta 19:55	01:05 eta 13:40	☾
28	08:19 eta 20:58	01:59 eta 14:39	☾
29	09:25 eta 22:11	03:01 eta 15:46	☾
30	10:41 eta 23:28	04:12 eta 16:59	☾

ZAINTZAKO BOTIKAK

AZAROA

- 1 eta 2, Larrañaga.
- 3an, Etxeberria.
- 4an, G. Artiñano.
- 5ean, Azaldegia.
- 6an, Zulaika.
- 7an, Iriarte.
- 8tik 14ra, Lasa.
- 15 eta 16, Azaldegia.
- 17an, Zulaika
- 18an, Mutiozabal.
- 19an, Azaldegia.
- 20 eta 21, Iriarte.
- 22an, Etxeberria.
- 23an, Larrañaga.
- 24 eta 25, Zulaika.
- 26an, Iriarte.
- 27 eta 28, Larrañaga.
- 29an, Zulaika.
- 30ean, Azaldegia.
- 31n, G. Artiñano.

- **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz







>>> Ikusten duzu aldea?  
Zure esku ere badago

**ZURE SALTOKIA ETA ZU**

PERTSONA HILBURI





